

# Idazki Desktopen pina berrerabiltzeko gidaliburua (Windows eta Mac)

2019ko uztaila



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LAN ETA JUSTIZIA  
SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO  
Y JUSTICIA



## Windows sistema eragilea

Aplikazioan sartzen zaren bakoitzean PINa ez sartzeko, PINa berrerabiltzeko aukera erabili behar duzu, horretarako:

- Reutilizacion.zip fitxategia ondorengo estekatik jaitsi:  
[Reutilizacion.zip](#)
- Jaitsi ostean, mahaigainekoan ireki edo deskonprimatu egin behar duzu.
- Hiru fitxategi lortuko dituzu:

1. **Bit4xpki.dll.conf**
2. **Bit4ipki.dll.conf**
3. **Izenpesigner-desktop.propierties**

- Lehen bi fitxategiak kopiatu:

**Bit4xpki.dll.conf** eta **Bit4ipki.dll.conf**

- Kopiatu ostean, sistemaren hurrengo bideak jarraitu behar dituzu:

[C:\windows\system32](#)

[C:\windows\syswow64](#)

**(Zure sistema 64 bit-ekoa ez bada, ez duzu karpeta hau edukiko)**

- Kopiatutako fitxategiak bertan itsatsi behar dituzu.
- Sistemak aurretik dauden fitxategiak ordezkatu nahi dituzun ala ez galdetuko dizu: baiezkoa sakatu.
- Ondorengo fitxategia kopiatu ezazu: **Izenpesigner-desktop.propierties**
- Kopiatu ostean, hurrengo karpetetara joan zaitez:

**32 Bit-eko ordenagailua bada:**

[C:\Program Files \(x86\)\izenpe\idazki-desktop-protocol](#)

**64 Bit-eko ordenagailua bada:**

[C:\Program Files\izenpe\idazki-desktop-protocol](#)



- Fitxategia dagokion karpetan itsatsi. Sistemak fitxategiak ordezkatzeko baimena eskatzen duenean, baiezkoa sakatu.
- **Pausu guztiak egin ondoren, ordenagailua berrabiarazi behar duzu.**

## MAC sistema eragilea

Aplikazioan sartzen zaren bakoitzean PINa ez sartzeko, PINa berrerabiltzeko aukera erabili behar duzu, horretarako:

- **libbit4xpki.dylib.conf** fitxategia (**reuMac.zip** barnean sartuta) hurrengo estekatik jaitsi ezazu:


[reuMac.zip](#)

- Jaitzita daukazunean, fitxategia aurkitu eta kopia ezazu. (Eskubiko botoia- kopia)

- **Finder**-a ireki →




1. Irudia Finder irudia



- Sakatu goian **Ir** aukera  
Sakatu **Ir a la carpeta**.
- Laukian, ondorengo helbidea idatzi:  
</Library/Izenpe/pkcs11/>


2. irudia: Finder-eko Ir ataleko aukerak erakusten dituen irudia.

- Fitxategia bertan itsatsi
- Itsatsi ondoren, Sistemak aurretik dauden fitxategiak ordezkatu nahi dituzun ala ez galdetuko dizu:




3. Irudia: izen berdina duen beste artxibo bat existitzen dela adierazten duen mezua

- **Reemplazar** sakatu.
- Ordezkatzeko administratzaile baimenak beharko dituzu, hortaz, ondorengo mezua agertuko da:



#### 4. Irudi: Administratzailearen egiaztatze-pantaila

- Zure erabiltzailea eta pasahitza sartu eta **Aceptar** sakatu ezazu.
- Pausu hauen ostean, Idazki Desktop aplikazioa aurkitu behar duzu. (aplikazioetan edo deskargatu duzun karpetan).
- **Mostrar contenido del paquete** aukeraren gainean eskuineko botoia sakatu ezazu.




#### 5.irudia: "paketearen edukia erakusteko aukera" hautatzeko pantaila

- Hurrengo karpetetatik pasatu behar duzu:

**Contents**  
**Java**

- Ondorengo fitxategia aurkitu arte:  
**Izenpesigner-desktop.properties**

- Bitan klikatu eta **Text edit** testu-ediziorako aplikazioa aukeratu ezazu:
- Hurrengo lerroa aurkitu behar duzu:  
***enablePinCache=false***
- **False** ezabatu eta **true** jarri
- Lerroa horrela gelditu behar da:  
***enablePinCache=true***



```
# Nombre estandarizado del protocolo
sslProtocol=TLSv1

# true: las conexiones se realizan
# false: no se utiliza proxy para
#proxyAuto=
#proxyAutoUser=
#proxyAutoPassword=
#proxy=

# Tiempo maximo de conexion en las
connectTimeOut=60000

# Tiempo maximo de lectura en las
readTimeOut=60000

# true: se habilita el cacheo de F
# false (valor por defecto): se de
enablePinCache=true

# tiempo maximo (en milisegundos)
# permite mas de 8hrs (por defecto)
maxPinSession=14400000


# true: se habilita PKCS#11 como m
# false (valor por defecto): se de
enablePkcs11=true
```

6.irudia: propietateen artxiboaren lerroak erakusten dituen pantaila; *enablePinCache=true* kodeak nola agertu behar duen erakusten da.

- Gordetzeko bi aukera dituzu:
  - 1) Goian **Archivo-guardar** klikatu



2) Hurrengo lasterbidea sakatu:



7. irudia: CMD + S teklaren irudia  
(MAC-en)s

- Prozedura bete ondoren, pin-a behin idatziz gero berrerabiltzeko prest egongo da.

**GOGORATU: prozedura guztia betetzeko administratzaile baimenak behar dituzu.**